



Aurrekontu partehartzaileak 2025

Presupuestos participativos 2025

Proposamena

Propuesta

9402-Durango zaintza lanen diagnostiko partehartzailea egiteko proposamena

9402- Propuesta de diagnóstico participativo de cuidados en Durango

ABIAPUNTUA: Gaur egungo zaintza lanen antolaketak ez ditu gizartean dauden beharrak asetzen. Sistemak ez du gaitasunik ongizatea bermatzeko biztanleriaren geruza guztiei eta, datuen arabera, egoerak okerrera egingo du. Horregatik, zaintza krisiaz mintzo gara talde zein teoriarari feministak.

PROPOSAMENA: zaintza lanak berrantolatu eta demokratizatu egin behar dira. Erronkari ekiteko, lehen urratsa tokian-tokiko egoeraren errealitatea aztertzea eta ezagutzea da. Horregatik, Durangoko zaintza lanen diagnostiko parte hartzailea egitea proposatzen dugu.

DIAGNOSTIKOAREN IZAERA: Diagnostikoa egiteko prozesua parte hartzailea izango da. Zentzu horretan, Durangoko elkarte, herri mugimendu eta herritarren parte hartzea bermatuko da. Izaera parte-hartzailea kontuan izanda, Diagnostikoa aurrera eramango duen taldeak hurrengo osiera izango du:

PUNTO DE PARTIDA: La actual organización de los trabajos de cuidado no satisface las necesidades sociales. El sistema no tiene capacidad para garantizar el bienestar a toda la población y, según los datos, la situación empeorará. Por eso se habla de la crisis de cuidados tanto en los grupos como entre los teorizadores y teorizadoras feministas.

PROPUESTA: las tareas de cuidado deben reorganizarse y democratizarse. El primer paso para abordar el reto es analizar y conocer la realidad de la situación local. Por ello, proponemos realizar un diagnóstico participativo de los trabajos de cuidados en Durango.

CARÁCTER DEL DIAGNOSTICO: El proceso de elaboración del diagnóstico será participativo. En este sentido, se garantizará la participación de asociaciones, movimientos populares y ciudadanos de Durango. Teniendo en cuenta el carácter participativo, el equipo que llevará a cabo el Diagnóstico tendrá la siguiente composición:



-Talde teknikoa: Diagnostikoa diseinatu, antolatu eta dinamizatuko du. Eraitzen azterketa teknikoa ere egingo du

- Udal ordezkari politikoak: Berdintasun arloko zinegotzia eta Gizarte zerbitzuen arduraduna egongo dira. Udal teknikariak: Berdintasun teknikaria eta gizarte langileak egongo dira.

-Mugimendu feminista, herri mugimendua eta herritarrak: Zaintza lanetan pentsatzen eta hausnartzen ari diren elkarte zein mugimenduak gako izango dira prozesuan zehar proposamenak egiteko eta etorkizuneko egitura publiko edo komunitarioak sortzeko.

- El equipo técnico diseñará, organizará y dinamizará el diagnóstico.

- La representante política municipal realizará también un análisis técnico de los resultados: estará la concejala de Igualdad y la responsable de Servicios Sociales.

- Técnicos municipales: Estarán la técnica de igualdad y las trabajadoras sociales.

- Movimiento feminista, movimiento popular y ciudadanía: Las asociaciones y movimientos que están pensando y reflexionando en las tareas de cuidado serán claves para hacer propuestas a lo largo del proceso y crear futuras estructuras públicas o comunitarias. "

Bideragarria da? BAI

¿Es viable? SÍ

Aurrekontua: 15.000 €

Presupuesto: 15.000 €

EZAUGARRI TEKNIKOAK | CARACTERÍSTICAS TÉCNICAS

Udal kompetentzia da eta politika publikoekin bat dator?

¿Es competencia municipal y es acorde a las políticas públicas?

Bai | Sí

Interes orokorrekoa da? | ¿Es de interés general?

Bai | Sí

Proiektuaren ideia nagusiak

Ideas principales del proyecto

Durangoko zaintzaren errealitatea ezagutzea.

Conocer la realidad del cuidado en Durango.

Pertsona zainduen eta zaintzaileen beharrak eta eskakizuna aztertzea.

Análisis de las necesidades y requerimientos de las personas cuidadoras y cuidadoras.

Herriko eragile desberdinekin lan egingo da.

Se trabajará con diferentes agentes del pueblo.



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

